BEREZKO JARDUERAK
LAGUNTZEN PROGRAMAK ETA FUNTSAK
EGITURA FUNTSAK
ESKUALDE GARAPENEKO EUROPAKO FUNTSA (EGEF)
**1. ARDATZA. LEHIAKORTASUNA ETA ENPLEGUA HOBETZEA ETA EKOIZPEN SAREA GARATZEA**

**Neurria: Enpresa txiki eta ertainei laguntzea**

**1. programa:** enpresen lehiakortasunari laguntzea

**Programaren laburpena:**
Laguntzen urteko deialdia, Arabako enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea bultzatuko duten jarduerak sustatzeko helburuarekin.

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**
http://www.alava.net/economia/promocion.html

**2. programa:** Enpresa unitate berriak sustatzea

**Programaren laburpena:**
Laguntzen urteko deialdia, Arabako enpresa sarea indartzeko helburuarekin, enpresa unitate berriak sortuz, badauden enpresen dibertsifikazioa bultzatuz eta Arabako Lurralde Historikoan enpresak ezarriz.

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**
http://www.alava.net/economia/promocion4.html

**3. programa:** Euroleihatila

**Programaren laburpena:**
Euroleihatila zerbitzuak aukera ematen die enpresei Europar Batasunarekin lotutako gaiei buruzko kontsultak egiteko, hala nola, EBren eta estatu kideen araudia, Europak ematen dituen laguntzak, nazioarteko lankidetza eskaintzak, etab.

**Argibide gehiago nahi izanez gero**
SEA Arabako Enpresariak
Posta pasabidea – Araba Jenerala 32 – 6.a
01001 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945000400 Faxa: 945132185
sea@sea.es

**4. programa:** Hitzarmena Arabako Merkataritza Ganberarekin

**Programaren laburpena:**
Lankidetza Arabako Merkataritza Ganberarekin, ekonomia saretik bertatik sortutako elkartegintza kanalak aprobetxatzeko, hala nola, jarduera hauek egiteko: Internet sustatzea enpresen artean, business games, argitalpenak eta azterlanak.

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**
http://www.camaradealava.com/

**5. programa:** Lankidetza SEA - Arabako Enpresariekin

**Programaren laburpena:**
Lankidetza SEA-Arabako Enpresariekin, ekonomia saretik bertatik sortutako elkartegintza kanalak aprobetxatzeko, hainbat jarduera egiteko, hala nola: enpresa txiki eta ertainetan telematika sartzeko programak, enpresa txiki eta ertainei azken zerbitzua emateko ekintzak (jardunaldiak, tailer praktikoak, etab.), argitalpenak eta enpresa ikasketak.

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**
http://sie.sea.es/

**Neurria: nazioartekotzeari eta kanpo sustapenari laguntzea**

**Proiektuen adibidea**

**1. programa.** Kanpo sustapeneko hitzarmenak.
**Programaren laburpena:**
Lankidetza Arabako Merkataritza Ganberarekin, ekonomia saretik bertatik sortutako elkartegintza kanalak aprobetxatzeko, hainbat jarduera egiteko, hala nola, nazioarteko azoka eta topaketetan parte hartzea, esportazioari emandako saria, zentro multimodaletarako laguntza teknikoa.

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**
http://www.camaradealava.com/